

KOSTUEN EGITURA

Kostuaren egiturari dagokionez, proiektua aurrera eramateko 30000€-rekin hasiko ginake.

Hasteko, lokalak ekarriko dizkigun kostuen inguruan jardungo gara. Leku hau, bezeroekin harremanetan jartzeko eta gauza guztiak antolatzeko erabiliko dugu. Lokala alokatua denez, bere kostua 856€ izango da hilabeteko, argia eta ura barne; beraz, kostua zuzena eta finkoa izango da. Bertan altzairuak jarri beharko ditugu eta horiek 300€-ko kostua izango dutela kalkulatzeko gutxi gora-behera. Telefonoa eta ordenagailuak ere edukiko ditugu eta hauek ere kostu bat izango dute. Ordenagailu bakoitzak 600€ balio ditu eta telefonoaren tarifa 20€-koa da hilabeteko. Hauek ere kostu zuzen eta finkoa dute. Honekin batera interneta ere jarri beharko dugu, eta horren balioa 30€koa izango da.

Webgune bat ere beharko dugu bertan bezeroak informazioa eskuragarri izan dezaten. Hau egiteko aditu talde bat kontratatuko dugu, bai web-orria sortzeko baita arazoren bat dagoenean konpontzeko. Bilaketa apur bat eginez honek 450€ inguruko kostua izango duela ikusi dugu.

Laborategiari dagokionez, laborategi propio bat beharko dugu, bertan bezeroen ADN-ak ongi aztertzeko. Laborategi hau alokatua denez, bere kostua hilabeteko 850€ ingurukoa izango da. Horrekin batera, hornitzailearekin kontaktuan jarri behar gara laborategian lan egiteko behar ditugun materialak erosteko, eta horrek kostu handi bat izango du; 5275€-koa.

Bezeroei ADN-a aztertzeko materiala bidatzeko, lagina laborategira bidaltzeko, gure artean materialak trukatzeko, eta bezeroei informazioa bidaltzeko korreo zerbitzuak erabiliko ditugu. Zeinbat posta zerbitzu alderatuz bidaiak bakoitzeko 5€ko gastua izango dugula kalkulatu dugu.

Beste kostu garrantzitsu bat turismoari dagokio, hau da, turismo enpresa bati ordainduko diogu eta enpresa arduratuko da herrialde horretako bidaiako ekintzak eta bisitak antolatzeaz, gida pertsonal aurkitzeaz, herrialdeko familien kontaktuak lortzeaz... Honen gastua ezin dugu zehatz esan, herrialde guztiak ezberdinak direlako eta batzuetan gehiago edo gutxiago ordaindu beharko dugulako, baina gutxi gora-behera bidaiak bakoitzeko 5000€-tik gora.

Aipatu behar da, gure enpresak txikia eta hasiberria denez, aurrera egiteko publizitatearen laguntza beharko duela, eta horretarako, lehen hilabeteetan *influencer*

bati bidaiak paregabe bat antolatuko diogu dena ordainduta (2000€-ko kostua izango duena). Horren truke, berak sare sozialetan bere esperientzia kontatuko du guri publikitatearekin. Horrela gure enpresa jendearen ahotara pasatuko litzake eta ez ginateke ezezagunak izango.

Hortaz gain, gure enpresako langileen soldata ere ordaindu beharko dugu. Hasiera batean hilabeteko 1500€, baina, kontuan hartu behar da lan gutxiago edo gehiago egiten badute soldata aldatu egingo dela baita enpresaren irabazien arabera. Kostu hau zuzena eta finkoa izango da.



KOSTUA LEHENENGO HILABETEAN:

Webgunea	450€	×1	450€
Lokala	856€/hilabeteko	×1	856€
Ordenagailua	600€	×5	3000€
Laborategia	850€/hilabeteko	×1	850€
Posta zerbitzua	5€/bidaiako		5€
Turismoa	Herrialdearen arabera		5000€tik gora
<i>Influencer</i>	2000€/bidaiako	×1	2000€
Soldatak	1500€/pertsonako	×7	10500€
		Guztira:	~22661€

Hau dena esan eta gero, gure enpresak eskaintzen dituen baliabideak kalitatezkoak direla esan behar dugu. Izan ere, gure enpresa goi mailako bidaiak antolatzen ditu eta horregatik eskaintzen dugun zerbitzua bikaina izan behar da. Hori dela eta, gure kostuak ere altuak izango dira.



